



# SANPEDROETAN FESTA GIROA ZABALDUKO DA

Asteburuan, Leaburun eta Asteasun ez ezik Urkizun eta Abaltzisketan ere izango dute zer gozatua 3

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2008-06-26

VIURTEA 1.470.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

### Udal antzerki tailerrekoen emanaldia izango da bihar ikusgai Leidorren

**TOLOSA** 'Por tus muertos' lana aurkeztuko dute Helena Aranbarriren ikasleek 2



Txirrindulariak helmugan. HITZA

### Gipuzkoako Txapelketan eskualdekoak irabazle

**TOLOSALDEA** Tolosa CFko neskak kadete, junior eta seniorretan gailendu dira 4

### Kilometroen aldeko Bizikleta eta Bonberenea Festa antolatu dute etzirako

**TOLOSA** Zerkausian cycling egiteaz gain, kontzertuak ere izango dira Bonberenean 4

### 70 urteko auto gidari bat zauritu da, N-1 ean izan den istripuaren ondorioz

**ALEGIA** Bi kamioik, furgoneta batek eta auto batek elkar jo zuten atzo eguerdian 7



Astlehenean heldu ziren lehen sahararrak eskualdera; guztira 14 gaztetxo igaroko dute uda bertan. INIGO TERRADILLOS

## BI HILABETEZ GURE ARTEAN IZANGO DIRA SAHARARRAK

**TOLOSA** 14 haur izango dira guztira Tolosaldean; sei dira aurtien lehen aldiz haurra etxean hartuko duten familiak; astlehenean eta asteartean heldu ziren Tolosara gaztetxoak 3



- Bertan hezitako txerrikume errean espezializatua
- Asteburuko degustazio menua: 30€

Iriarte jateak

Tel.: 943 683 078

Jose Mari Goikoetxea, 34 • BERROBI

www.iriartejateak.com • info@iriartejateak.com



Biharko emanaldiaren baitan ikusi ahal izango den antzezlanetako baten entseguak. HITZA

## Udal antzerki tailerrekoen emanaldia izango da bihar

**Kultura** » Gezurrean oinarritutako bizitzak dituzten pertsonaien istorioak kontatzen dituzte 'Por mis muertos' obran.

### ERREDAKZIOA

Udal antzerki tailerreko ikasleek osatutako Tic-tac antzerki taldeak *Por mis muertos* antzezlanaren aurkeztureko du bihar Leidorren. Ikasurtean zehar prestatutako obrak bildu eta ikuskizun polit bat osatu dute. 22:30ean hasiko den saioan 10 aktorek hartuko dute parte. Hilabete hauetan guztietan, nahiz biharkoan Helena Aranbarri izango dute gidari.

Gaurko emanaldia lau antzezlan laburrek osatzen dute. Denek ere ezaugarri bat dute komunean, gezurra dela beraien bizimodua, eta heriotza, sahiestezina, pasadizo gisa bakarrik. Lan hauetan beraien buruarekiko segurtasuna eta

### » ANTZERKIA

- **Izenburua.** 'Por mis muertos'.
- **Eguna.** Ekainak 27, ostirala.
- **Ordua.** 22:30.
- **Tokia.** Leidor antzokia.
- **Aktoreak.** Jeronimo Otegi, Geno Salinas, Carmen Iza, Jon Olaetxea, Carmen Jimenez, Bene Rodriguez, Nerea Urbizu, Lore Iturrioz, Susana Garcia eta Laura Claudino.
- **Zuzendaria.** Helena Aranbarri.

konfiantza agertzen duten pertsonaiekiko errepaso bat egiten da. Izan ere itxuraz gustura baldin badaude ere, gezurra besterik ez dute esaten.

Errealitatean gertatzen den bezala, pertsonaia bakoitzaren istorioak ez du bestearenarekin zerikusirik, erabat desberdinak dira. Baina, patuari edo zoriari esker, denek bizitzak gurutzatzen dira une jakin batean. Denak baikara gainontzekoen bizitzaren zati ere. Antzezlan hauetan, pertsonen

barnealdearen, eta izaeraren inguruko errepaso bat egiten da. Salatuak eta salatzaileak, egoera beraren aurreran, batuak ikusten gara. Heriotzak egoera erabat absurduetara eramane gaitzake. Izan ere, ba al dago zerbaitek taxugabekoagorik, uneoroko porrota sahiestea baino? gure etorkizunaren jabe gara, uste izateko baino?

Nahiz eta itxuraz, gai serioak jorratu, umorea erabiliko dute Tic-tac taldekoek aurrera jarraitzeko, eta antzezlan guztiak elkarrekin lotzeko.

Helena Aranbarri, antzerki taldeko zuzendariak eskerrak eman nahi dizkie besteak beste, biharko saioan parte hartuko duten 10 aktoreei. Baita, Adrian Perez, musikarengatik, eta aktore-koraboretzaille guztiei. Amaitzeko, Asier Caminos eta Sergio Garcia teknikoaren lana eta kartelaren diseinatzaile izan den Fortu Ruiz de Eguilazena nabarmendu du zuzendarik.

## 'Tolosa kantari' ekimena abiatuz, hiritik barrena kantuan ariko dira etzi

**Kultura** » Euskal kantauk abestuko dituzte; estreinakoz, 12:00etan abiatuko dira Alde Zaharreko Tontokaletik.

### ERREDAKZIOA

*Tolosa kantari* ekimena abian jarri nahi dute tolosar batzuek. Egitasmo honen helburua da, hilean behin, hileko azken larunbatean, hain zuzen, 12:00etan Tolosako Rondilla kaleko Tontokale deitzen zaien plaza osoan elkartzea eta ordubiak arte, gutxi gorabehera euskal abesti batzuk kantatzea. Hala, Alde Zaharretik barrena bueltatxo bat emanez, txistulari edo trikitilari batzuekin. Lehendabiziko saioa etzi izango da, 12:00etan Rondilla kaleko Tontokale plaza osoan elkartuko direlarik kantariak.

Ekimen hau bultzatzen ari diren tolosarrek kopia bana emango dizkiete kantuen letrekin, parte hartu nahi dutenei, bertan banatzeko.

Nahi duen orok aukera izango du horrela kantatzeko, nahiz eta letrarik ez jakin. Dagoeneko Gipuzkoako eta Euskal Herriko herri askotan egiten dira horrelako ekitaldiak: Donostian (hileko azken larunbatean), Iruñean (hileko lehen larunbatean), Hernanin, Errenterian, Pasaian, etab.

Tolosan Lizardi elkartek bisaiako antolatutako azken urteotan. Bestalde, Amaratzen asteazkeno elkartzen da talde txiki bat kantuan aritzeko eta hauek ere kalera ateratzeko asmoarekin dabilta. Honenbestez, eta antolatzaileek azaldutakoaren arabera, «horrelako zerbaitek egiteko gogoak ikusten zuten Tolosan, eta bakoitza bere aldetik ibili beharrean, hobe zela indarrak eta asmoak elkartzea» erabaki zuten.

Ondorioz, Amaroako, Lizardiko eta beste zenbait elkartetako jendearekin hitz egin eta gero, proposatu dute Tolosan ere hilean behin elkartzea, kantuan aritzeko kalean.

## Bi nerabe atxilotu dituzte lapurreta egiteagatik

**Gertaera** » Labana bat erabiliz beste adingabe bati poltsa lapurtzen saiatu ziren herenegun; Renferen geltokian gertatu zen.

### ERREDAKZIOA

Ertzaintzak 14 eta 15 urteko bi mutiko atxilotu zituen herenegun, larderia erabiliz lapurreta egitea leporatuta. Biktima (adingabekoa hori ere) labana batekin beldurtu zuten eta eraso egin zioten poltsa lapurtzeko, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakitera eman zuenez.

Gertakariak 06:30a aldera jazo ziren, Renferko geltokiaren ondo-

an. Bi mutiko beste adingabe bategana joan ziren, eta, lepoan labana bat jarri eta eraso egin ondoren, poltsa lapurtu zioten. Beste gazte batzuk erasotzaileen atzetik irten ziren korrika, eta poltsa berreskuratu zuten, baina sakeleko telefonoa eta diru zorroa falta ziren. Lekuko batek ohartara zuen Ertzaintza, eta hurbildu zenean, adingabe bati gertatutako guztia kontatu zion, eta erasotzaileen ezaugarri fisikoen eta arroparen deskribapena eman zien. Minutu batzuk geroago, agenteek 14 eta 15 urteko bi nerabe aurkitu zituzten gertakariak izan ziren tokitik gertu, eta, biktimarekin ustezko bi lapurrak zirela esan zuenez, atxilotu egin zituzten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Haurrak etortzean hainbat opari ematen dizkiete. Irudian, astelehenean egin zieten harreraren une bat. I. TERRADILLOS

Astelehenean eta asteartean iritsi ziren saharar gaztetxoak eskualdera uda gure artean igarotzeko helburuz; aurten 14 haur izango dira Tolosaldean; sei familia dira aurten lehen aldiz haurra hartuko dutenak.

## Sahararrak gurean dira

INIGO TERRADILLOS

**H**emen dira urtero bezala haur sahararrak. Astelehenean eta asteartean iritsi ziren eskualdera, Sahara errefuxiatuen kanpamentuetara gurean bi hilabete pasa ostean, hau da, uda igarotzean itzuliko dira, abuztuaren 22-23an.

Urduri, irrikaz, emozioz beterik, zeuden gaztetxo sahararren zain familia hartzaileak Tolosako Sor-tez Garbia plazan. Izan ere, askorentzat denbora luzea igaro da elkar ikusi zute azken egunetik; beste batzuek, berriz, familia berriek, alegia, haurra lehen aldiz ikustean zurrara sentitzen zuten. Baina itzarroteak merezi zuten, eta azkenean iritsi zirenean, poza izan zen nagusi, besarkadak, irribarreak eta negar malkoekin batera.

### Sei familia berri

Pasa den urtean bezala bi txandetan etorri dira aurten ere umeak. Astelehenean 11 iritsi ziren, eta herenegun 3. Guztira, beraz, 14 haur sahararrak izango dira eskualdean aurten. Gaztetxo hauetatik hiru lehen aldiz etorri dira Tolosaldera, eta kanpamentuetatik ateratzen zirenen lehen aldiz zuten baita ere. gainerako 11 gaztetxoentzat ezagunak dira gure inguruak. Familia hartzaileei dagokienez aurten sei dira lehen aldiz haurra hartzera animatu direnak.

Herrika banatuta, Tolosan 5 haur izango dira, Egnaha, Abdala, Abdrahman, Alieta Agida; Villabonan 3 daude, Maaluma, Husein eta Jlifa; Anoetan beste bi daude, Fatimetou eta Sidahmed; Leaburunerebi, hau da, Mohamad Moulud eta Emelilimin; Lizartzan Yehadlu-kigaroko du uda eta Ibarra Eldebj.



Besarkadez hartzen dituzte familiek sahararrak. I. TERRADILLOS

### Lehen egunak gurean

Espero baino lehenago iritsi dira aurten sahararrak, eta ohikoa baino lehenago itzuliko dira beraz, hau da, abuztuaren amaiera alde-ra, baina beti bezala, bi hilabete inguru igaroko dituzte gure artean.

Udako bisitaldiaren lehen egunetan, mediku azterketak egingo dizkiete umei. Izan ere, sahararren kanpamentuan baliabide gutxi dituzte, beraz, hona etortzen direnean azterketa sakon bat egingo baliatzen dute.

Behin azterketak eginda, uda gure artean igarotzearen esperientzia bizitzea geratzen zaie gaztetxoei; eta baita familia hartzaileei ere, haur hauek etxean izateak haurri berari ezetik familiari ere ekarpen handia egiten baitio; udan desertuko bero handietatik alden-

tzea da haurri osasun aldetik emango dion onura handietako bat, bere bigarren familia bisitatzearaz gain. Familia hartzaileari, berriz, haurrekin uda igarotzeak ematen duen pozaz gain, euren egoeraz gehiago jakiteko aukera emango dio. Hala, familian igaroko dituzten egunez gain, irteerak eta hainbat ekitaldi ere antolatuko dituzte egun hauetarako, haur guztiak elkarrekin egon daitezzen.

### Umeak hartzeko aukera

Bestalde, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek azaldu duten bezala, oraindik ere aukera badago sahara haur bat udan etxean hartzeko, Donostian hainbat baitaude familiarik gabe. Animatzen direnek elkarteko kideekin jarri behar dute harremanetan.



Pasa den urtean Urkizun egin zuten herri bazkariaren une bat. ESTIEZBEZA

## Asteburuan festa giroa, Urkizun eta Abaltzisketan

**Jaiak** » Urkizun etzi hasiko da festa giroa, eta Larraitzen, berriz, San Pedro Egunean izango dira ekitaldiak.

### ERREDAKZIOA

Ekitaldiz beteriko asteburua izango dute Abaltzisketan eta Urkizun. Lehenengoan igandea izango da jai eguna Larraitzen, eta bigarrenean etzi hasi eta igandea bitarte izango dute festa.

Urkizun afarian bilduko dira auzotarrak eta trikiti doinuak izango dituzte. San Pedro Egunean, toka eta bolo txapelketa batetik eta umeentzako jolasak bestetik izango dira nagusi, baita trikiti doinuak ere.

Abaltzisketako Larraitz auzoan, bestalde, hamaiketako emango dute, eta trikitaliak izango dira egun osoan, giroa alaitzen.

### » EGITARAUA

#### URKIZU Ekainak 28, etzi

- 21:00. Auzoko afaria.
- Gauean. Trikitaliek alaituko dute giroa.


#### Ekainak 29, igandea (San Pedro Eguna)

- 09:00. Diana.
- 11:00. Meza nagusia eta ondoren hamaiketako.
- 12:30. Toka txapelketa herrikoiko egingo dute.
- 18:00. Umeen jokoak eta bukeran txokolatada.

- 18:30. Bolo txapelketa.
- Egun osoan. Trikitaliek alaituko dute eguna.

#### ABALTZISKETA Ekainak 29, igandea (San Pedro Eguna Larraitzen)

- 12:30. Meza nagusia.
- Ondoren. Hamaiketako emango dute, eta trikitalien doinuak izango dira entzungai.
- Arratsaldean. Trikiti doinuak izango dira berritoki ere entzungai iluntzera arte.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# Bizikleta eta Bonberenea Festa etzirako Tolosan

## Kilometroak 2008»

Tolosako Zerkausian cycling-a egiteaz gain kalegiroa eta kontzertuak izango dira Bonberenean.

### IMANOL GARCIA

Larunbat honetan ez da girorik faltako Tolosan. Kilometroak 2008 egitasmoaren baitan Bizikleta Festa antolatuta dute arratsalderako eta horren ondoren Bonberenea Festa gehituko da.

Bizikleta Festan, Zerkausiaren gainean cycling-a egingo dute 16:30etik hasita, lau saiotan. Bakoi-tzean monitorea ezberdinak egongo dira saioa gidatzen. Guztira 100 lagun inguru elkartu daitezzen espero dute antolatzaileek.

Bonberenea Festaren helburu nagusia Tolosako kaleak giro-tzeaz gain, KMK-08 inguruan ari diren pertsona guztiei festa bat eskaintzea eta Bonberenea txarantzea eta ezagutzeko aukera izatea da. 19:00etan kaleak girotzen hasi-



Bizikleta Festaren kartela. HITZA

ko dira erraldoiak, buruhandiak, Mulanbo eta Bonberenea txarantzearekin. 21:00etan kontzertua izango da Bonberenean. Sarrera

doakoa izango da eta Desordutan (eta hauen lagun batzuk) eta In de kitxen taldeak ariko dira. Ondoren DJ Bull-en txanda izango da.

# Udako arropa asko merketuko dute

### I. GARCIA

Kilometroak 2008ko dendan berrikuntzak izango dira gaurtik aurrera. Udako arropa %40an merketuko dute. Karmen Izagirre biltegiko arduradunak azaltzen duenez, «beherapenak egingo ditugu udako arropetan. Logoa duten ohiko kamisetek bere prezioan jarraituko dute. Orain da aukera erosteko, arropa asko merketu baita».

Bestalde, uda begira ordutegi aldatuta izango da bai Tolosako dendan bai Irurako biltegian. Horela, Tolosako Kale Nagusian da-

goen denda goizez egongo da irekita, hau da, asteleheneetik larunbatera, 10:00etatik 13:00etara. Irurako biltegia, berriz, astearte eta ostiraletan 17:00etatik 20:00etara. Uztailean hilabete guztian egongo dira irekita. Abuztuan zehar, hilaren 10era arte eta 25tik aurrera egongo dira irekita.

### «Gustura» salmentekin

Izagirrek azaltzen duenez, «gustura» daude salmentekin, baina «aipatzen den krisi ekonomikoak eta eguraldiak ez dute laguntzen asko arropa saltzeko». Horregatik,

espero dute salmentak handitzea. «Animatzen dugu jendea etor dadila erostera», gaineratzen du Izagirrek.

Udari begira ez dute jende faltarik izango ez dendan eta biltegian egoteko ez irteerak egiteko ere. «Egia esan», dio Izagirrek, «oso gustura gaude jendearen parte-hartzearekin. Boluntarioak oso ondo erantzuten ari dira eta udako ordutegiak eta irteerak bete ahal izango ditugu». Izagirrek gaineratzen duenez, «eskerrak besterik ezin dizkiegu eman guztiei bere laguntzarengatik».

# Eskualdekoak garaile Gipuzkoako Txapelketan

**Txirrindularitza»** Ane Usabiaga kadeteetan, Irene San Sebastian juniorretan eta Arantzazu Azpiroz seniorretan, txapelkunak.

### I. GARCIA

Gipuzkoako Emakumezkoen Txirrindularitza Txapelketa izan zen jokoan pasa den igandean Zizurkilen eta Villabonan eta eskualdekoak izan ziren garaile. Kadete mailan Tolosa CF taldean aritzen den Ane Usabiaga ordiziarrak irabazi zuen txapelketa. Juniorretan Irene San Sebastian tolosarra, Debabarrena taldekoa, izan zen garaile. Senior mailan Bizkaia taldeko Arantzazu Azpiroz berastegitarra izan zen lehena helmugan.

Patxi Altuna antolatzaileak azaldu duenez, «dena oso ondo

joan zen» antolakuntzaren aldetik. «Gure helburua zen proban segurtasuna bermatzea eta lortu genuela uste dugu. Gipuzkoako zein Euskadiko federazioek zoriondu gintuzten horregatik».

### Xoxoka erabakigarri

Aurtengoan ibilbidea aldatu zuten, hain justu N-1 errepeidea ekiditeko eta probak segurtasuna irabazteko. Ordiziara joan beharrenean, proba Andoain aldera joan zen Xoxoka mendate igoz. Hor erabaki zen bai juniorren bai seniorren txapelketa.

Arantzazu Azpirozek izan zen proba mugitu zuenetako bat mendatean gora eta berarekin batera 20 txirrindulari inguru aldegin zuten, horien artean hirur junior. Talde horretatik atera ziren gero bai seniorretan eta bai juniorretan txapelketa irabazi zutenak.

# Koadrilen eguna egingo dute etzi Zizurkilen

### ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, Zizurkilgo Joxe Arregi Plazan koadrilen eguna ospatuko da. 14:00etan bazkaria egingo dute eta ondoren *Benta zaharrekomutilala* taldeak alaituko du bazkalostea, musika eta

kantuak abestuz. Herritar guztiak bazkarian parte hartzea gonbidatzen ditu festa batzordeak. Norberak bere bazkaria eraman beharko du. Festa batzordeak ahulkiak, mahaia eta sagardo jarriko ditu guztientzat.

## Ekain beltza berriarekin

eleBERRI beltzAekin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak

Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+  
2,9€



OHARRA: Irteerak bukatu arteko eskaintza

**Hemen dago**

**308 Sw Berria**

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban Auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno: 943-650337  
Fax: 943-452938  
tolosa@tolosa.renpeugeot.com

# Lide Garmendia Gipuzkoako txapeladuna eta Euskadi mailan hirugarren gelditu da

**Ikaztegieta** » Gimnastika erritmikoko infantil mailan lortu du guztia; Tolosa CF taldekoa da, eta «pozik» dago lortutakoarekin.

## NEREA URBIZU


Lide Garmendia ikaztegiatarra Gipuzkoako Txapelketako txapeladuna izan da berri ere gimnastika erritmikoko. Ondorioz, Euskadiko Txapelketan aritu ahal izan da eta hirugarren postua lortu du infantil mailan. Uztaierekin eta pilotarekin aritu da. Ikaztegiatarrek «oso pozik» dagoela dio, «ez nuen espero Euskadikoan 3. egitea, espero baino okerrago atera baizitzaidan baloiaren proba batik bat». Honetan 15 gimnasta aritu ziren.

Gipuzkoako Txapelketan «lasaiago, gusturago ibili nintzen. Euskadikoan lehiakide gogorra goak nituen ere, eta urduria go nengoen».

## «Diziplina gogorra»

Lehenengo urtean Gipuzkoakoan bigarren gelditu zen infantil mailako lehen urtean eta «gustura nago horregatik ere, urtetik urtera hobetzen ari naizelako. Jadanik hurrengo urterako gogoekin nago». Tolosa CF taldean jarraitzeko asmoa du Lidek.

Lide Garmendia 13 urte ditu,



Lide Garmendia txikitatik praktikatzen du gimnastika erritmikoa. HITZA

eta txikitatik hasi zen gimnastika erritmikoko. Datorren urterako gogoak dauzka jadanik gimnasta gaztetxoak, baina berak adierazi bezala, «kirol hau oso gogorra da, sakrifizio asko eskatzen du. Gainera, urtero legeak aldatzen dira. Adibidez, datorren urtean mazoak erabili beharko ditut». Horrek suposatzen dio entrenamendu saioak aldatzea, noski.

Astean hirutan entrenatzen du Usabal kiroldegian, egunero bi orduz, baina azken asteetan bereziki egon da prestatzen Gipuzkoako eta Euskadiko, eta gehiago entrenatu du.

Lide Garmendia Arantxa Arisondorekin eta Jaione Tejedorrek aritzen da prestatzen astero, eta, noski, «beraieki esker ere lortu dut guztia».

## Laburrak

### Txekorra 2.352 zenbakia duenak irabazi du

**ABALTZISKETA** » Abaltzisketako San Joan jaietan urtero Guraso Elkarteak zozketa bat antolatzen du, eta txekor bat zozketatzen dute. 2.352 zenbakia izan da zenbaki saritua aurten, eta txartel hauekin aterako dirua herriko Txalburu eskolarentzat izango da. «Zorionak irabazleari!».

### V. Garagardo Azoka uztailaren 11n eta 12an

**ALEGIA** » Aurtengo Alegiako Garagardo Azoka uztailaren 11n eta 12an izango da Intxurre KKEk antolatuta. Aurtengoarekin bosgarrena izango dute frontoian ospatzen dutena, eta Karmen jaietako baino egun batzuk lehenago. Motorrak berotzeko asteburu aproposa aukeratu dute Alegian, jaiak uztailaren 15ean hasiko baitira (asteartea).

### Intxurre Pilota eskolakoen afaria, uztailaren 3an

**ALEGIA** » Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaierako afaria egingo dute uztailaren 3an, gaur zortzi, hain zuzen, pilota eskolakoek. Eguraldi ona baldin badago Kalebeherako parkean egingo da eta bestela Intxurre Elkartearen. Pilota eskolakoek Kultur Etxean eman behar dute izena afarira joateko.

### Konpartsa herrikoia izango da Karmen Egunean

**ALEGIA** » Uztailaren 16an, Karmen egunez, Konpartsa herrikoia ibiliko da Alegiako kaleetan 17:30ean hasita. Herriarekin osatutako konpartsa izango da eta helburu nagusia da kalejiran festa giroan ibiltzea, Incansables txarangaren laguntzarekin. Tartean, poteorako eta afaltzeko aukera ere izango da. Lantzeko inauterietan egiten duten gisara aterako dira konpartsa-kideak eta dantza egingo dute herriko hainbat tokitan. Dena den, dantza egitea ez da derrigorrezkoa; konpartsan parte hartzeko ongi pasatzeko gogoia zateza besterik ez da eskatzen. Konpartsan izena emateko epea uztailaren 4an bukatzen da, Kultur Etxean.

## Etziko Ugarteko betizu jaterako 80 lagunetik gora bilduko dira frontoian

### ERREDAKZIOA

Aurten ere betizu jatea antolatu dute Ugarten etzirako. Frontoian elkartzeko dira jateko eta gainera, hain bertan prestatzen dute betizua. Aurten, berritasunen artean, betizua prestatzen ariko direnak izango dira; izan ere, orain arte Ugartekoak ez ziren joaten ziren prestatzera, baina oraingoan bertakoak animatu dira.

Oraindik bada izena emateko aukera, baina gaur da azken eguna eta Goikoetxearena taberna eskura daitezke 27 euroren truke. Haurren prezioa 12 eurokoa da. Betizu jatera, noski, edozein etor daiteke, ugartearrek gustura artatuko dituzte bertaraten diren guztiak. 14:00etan eseriko dira frontoiko mahaien inguruan bazkalduko dutenek.

## Gaur, Tolosand Bluesen baitan, 'The soul of a man' filma ikusgai

### ERREDAKZIOA

Gaur 19:15ean edota 21:45ean *The soul of a man* filma (Win Wenders) ikusteko aukera izango da Tolosako Leidor antzokian. Tolosand blues egitarauaren baitan bluesarekin lotuta dagoen film bat ikusteko aukera estreinakoz dago aurten.

Film honetan, bluesaren munduan sakratua eta profanoa denaren artean dagoen tentsio dramatikoa erakusten digu, bere hiru artista gogokoenen musika eta bizitza aztertuz: Skip James, Blind Willie Johnson eta J.B. Lenoir, hain zuzen. Dokumental gisa, modu batean historikoa eta beste modu batean, alderdi pertsonalean sakontzailea den filmak musikari eskainitako bizitza horiek nolokola izan ziren erakusten digu.



## Loatzoko ikasleen kontzertua

**ALTZO** » Joan den ostegunean Loatzoko Musika Eskola ikasle taldeak amaierea zela-eta Altzoko ermitan emanaldia eskaini zuen. Kantua eta hainbat instrumentu entzun ahal izan ziren. Ondoren, Udalak otartekoak eskaini zituen guztientzat Segoretxen. HITZA

## ASTEASUN SAN PEDROAK

San Pedro jai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizuegu herritarroi

Asteasuko Udala

**Ekainak 26, osteguna HAURREN EGUNA**  
10:00: Haurren arteko krosa Marrazketa lehiaketa  
12:00-14:00: Haur Parkea  
14:00: Haurren arteko bazkaria

15:30-18:00: Haur Parkea  
18:30: Haur Antzerkia: ZIRKO TTIPIA taldea  
Guiriguay emanaldia  
20:30: Sorginaren Jeitsiera Txupinazoa  
Txistulari, Buruhandi eta Erraldoekin kalejira  
22:30: Bertso Saioa  
Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Joxe Agirre, Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iker Zubeldia  
Gai jartzailea: Saroi Jauregi

**Ekainak 27, ostirala KOADRILEN EGUNA**  
14:30: Koadrilen arteko bazkaria  
Arratsaldean: Helduentzat jolasak: kanikak etabar  
19:00: Herriko Musikariaren Kalejira  
21:30: Herri Afaria Plazan (Argibideak erdiko orrian)  
Ondoren TRAKETS taldea

**Ekainak 28, larunbata**  
11:00: I. GASTRONOMI ERAKUSKETA HERRIKOIA: Patata Tortilla  
13:00etan: SARI BANAKETA Dastaketa: Patata Tortilla eta SAGARDOA  
16:00: Gaztetxoaren Goitiberak (Elizmendin)

17:00: Mus Txapelketa Herrikoiak  
Mailak:  
-16 urte arte  
-16 urtetik aurrera  
18:00: Zezen txiki eta poneyak  
18:00: PELOTA JAIALDIA Esku Pelota Eskolako txapelketako finalak: Alebinak eta Infantilak  
Aitzondo Txirindulari Elkarteak antolatutako Asteasuko Pala Txapelketaren finala  
23:00: I ZALDI ekitaldia Lamiatetik soroan  
Gauerdian: Musika Kontzertua IPAR HAIZEA eta MENDEKU ITSUA Taldeak

**Ekainak 29, igandea SAN PEDRO EGUNA**  
10:00: Diana  
11:15: Meza Nagusia  
Ondoren Elizmendin: Hamaiketako, Dantza Soka Esku pelotako finalak: Aurrebenjaminak eta benjaminak  
13:00: Elizmendin TRIKITI EGUNAren Hasiera Taldeak elkartu eta kaleruntz irtengo dira Kalejiran  
18:30: Herriko gazteen arteko HERRI KIROLAK  
19:30: TRIKITI EGUNA: Jaialdia Herriko Plazan  
23:00: OSTOLAZA eta PUJANA Trikitilariak

**Ekainak 30, astelehena JUBILATUEN EGUNA**  
11:15: Meza Ondoren Aitzondo Elkarteak Herriko Jubilatuei Hamaiketako.  
13:00: Herri Kirolak Aizkolariak:  
Aratz Mugerza eta Xabier Alkizalete Ugaizt Mugerza eta Jokin Alkizalete  
Harrokasotzaileak: Aimar Irigoien eta Miren Urkiola  
14:30: Jubilatuen Bazkaria TELLERIA eta ZEBERIO bertsolariak eta XAPRE eta ZAHARRA trikitilariak.  
18:30: Herriko Dantzar Txikien emanaldia  
19:30: TAPIA eta LETURIA taldearekin Dantzaldia



Iragan hilabeteko azken ostegunean Leaburun egin zuten elkarretaratzean Ertzaintza agertu zen. ASIER IMAZ

## «Hausnarketa» eskatuko du Etxeratek azken ostiralean

**Politika** » Hainbat herritan elkarretaratzeak egingo dituzte; Asteasun jaien baitan hainbat ekitaldi izango dira.

ASIER IMAZ

Etxerat «oso kezkatuta» agertu da hilabeteko azken ostiraleko deialdia egiterakoan, «azken asteetan espainiar eta frantziar estatuek burutu dituzten eskubide urraketen gainik».

Bi eskualdeetako hainbat herritan ohiko ordu eta lekuetan bilkurak egingo dituzte bihar. Asteasun jaien baitan enkartelada berezia egingo dute arratsaldeko 20:30ean trikitiaz. Halaber, «01:00etan preso eta iheslarien aldeko brindisa» egingo dute txosnetan.

Etxeraten esanetan, «Pello Odriozola preso tolosarraren kasua azpimarratuko den arren, ezin dira ahaztu Mikel Ibañez edo Gatzaren kasuak, ezta sakabanaketa-aren ondorioz asteburuan egon den auto istripua ere».

Etxeraten esanetan, euskal jendartea «gogoeta egitera» bultzatu asmoz lanean jarraituko dute: «Hau guztia gaur gertatzearen arrazoia, herri honetako alderdi politikoek eta instituzioek estatuei eman dieten txeko zuria delako. Eta, krudelkerian ardatzuta espexxe politika honekin amaitu dezakeena euskal herritarren konpromisoa delako. Espainiak erabateko zigorgabetasuna lortu asmoz, errealitate gordin hau salatzen ari diren anfitriaren aldeko mugimenduko kideak kartzelara bidali asmo dituen, gure senideak eta

guraso eta ahizpek auto istripua izan zuten bisitatik izultzen ari zirela. Zorionez ez zuten kalte fisikorik jasan, baina sakabanatzen eta urrutuz jarraitzeak guri eta gure senideei ahalik eta sufrimendu gehien eragin nahian dabilzala erakusten digu. Espexxe politika hau indarrean dutenek azaldu beharko dute sufrimendu hori eragitearen zergatia. Zergatik eta zertarako bultzatu duzue 16 senide hil-tzea? Ehunka lagun zauritza? ».

### Pello Odriozola tolosarra

Pello Odriozolak 20 urte eta 6 hilabete daramatza espexxean. Gaur egun Lugon (Galizia) aurkitzen da eta «moduloan bakarrik daukate». Etxeraten esanetan «krudelkeriaren» adibide garbia da tolosarraren kasua: «Eurek ezarritako zigorraren arabera, uztailearen 2an kalteraren arabera, baina orain 10 urte luzatu diote espexxe zigorra lege berriarekin. Bere egoera berean aurkitzen da Ines del Rio euskal preso, 21 urte espexxean daramatzala. Erraz esaten dira 20 edo 21 urte baldintza gogorrean, baina horrek zer esan nahi duen jakiteko hausnarketa eskatzen dugu, konpromezuak hartzea beharrezkoa baita krudelkeria honen behin betirako amaitzeko».

### Ibañez, 'Gatza' eta istripua

Pello Odriozolak gain, Mikel Ibañezen kasua ere salatuko du etzi Etxeratek: «Minbiziarekin egoera larrian aurkitzen den arren, aske uztea baino nahiago izan dute espexxeratze arindua aplikatzea».

Jose Maria Sagardui, *Gatza*, ere gogoan izango dute etzi. «Europa guztian espexxean urte gehien daramatzen preso da *Gatza*, 28 urte beteko ditu uztailearen 8an». Bere herrian, Zornotzan, egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deialdia ere luzatuko dute.

Azkenik «sakabanaketa politika» salatuko dute. Etxeratek aipatu duenez, «azken asteburuan Nuri Alzugarai preso donostiarraren

guraso eta ahizpek auto istripua izan zuten bisitatik izultzen ari zirela. Zorionez ez zuten kalte fisikorik jasan, baina sakabanatzen eta urrutuz jarraitzeak guri eta gure senideei ahalik eta sufrimendu gehien eragin nahian dabilzala erakusten digu. Espexxe politika hau indarrean dutenek azaldu beharko dute sufrimendu hori eragitearen zergatia. Zergatik eta zertarako bultzatu duzue 16 senide hil-tzea? Ehunka lagun zauritza? ».

### Leaburun gaur 20:00etan

Leaburun gaur egingo dute elkarretaratzea 20:00etan. Ezker abertzaleak «Ertzaintzaren jarrera» salatu nahi izan du bere aldetik: «Etxeratekin bat eginaz azken ostegunetan egingen ditugu elkarretaratzeak. Deialdia eginez kartelak jarri genituen eta Ertzaintza horiek eta herriko hainbat pankarta kentzen aritu da. Lehen Joxe Martin Deustu zinegotzia salatu genuen lan hori egiteagatik. Orain bere lekua Ertzaintzak hartu du. Hauetara nork deitzen dien ez dakigu baina lotura behintzat ikusten dugu».

### » AZKEN OSTIRALA

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezket.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:30ean enkartelada.
- **Ibarr.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

## Gutunak

### Euskal Herriak aldaketa behar du! Gaur 19:30ean kotxe karabana

Ukazioa, zatiketa eta inposaketa. Horixe dugu Euskal Herriak urteetan zehar ezagutu duen errealitatea.

Espainiako konstituzioak nahiz Gernikako Estatutuak eta Nafarroako Foru Hobekuntzak, eta Frantziako Konstituzioak Euskal Herria zatitu eta gure herriaren existentzia ukatzen dute. Euskal herritarrek bere oraina eta etorkizunaren inguruan erabaki ahal dezan galaraziz.

Horren ondorioz, eragotzi egingo dute Euskal Herriak bere burua nazio gisa egituratu eta gure nortasun zutabeak diren hizkuntza, hezkuntza, kultura, esparru ekonomikoa, kirola eta abar garatu ahal izatea.

Euskal herritarrek aldaketa eskatzen dute. Egungo markoa agortu dela ez du inork zalantza jartzen eta aldaketa politikoren beharra inoiz baino hedatuago dago Euskal Herri osoan.

Euskal Herriak behar duen aldaketa: marko demokratikoa da. Aldaketa, Euskal Herria nazio gisa aitortu, lurralde zatiketa gainditu eta autodeterminazio eskubidea eskuratzea da. Euskal herritar ororen eskubideak aitortuko dituen orube demokratikoa finkatuz eta proiektu politiko guztiak aukera berdintasunean defenditzea eta

gauzatzea ahalbidetuko duten nazio instituzioak eratuz. Egin beharreko bidea, Euskal Herriko eragile artean adostu behar dugu, egungo errealitate juridiko-instituzional ezberdinetatik abiatuta.

Horrela eta ez bestela emango zaio irtenbide demokratikoa gatazka politiko eta armatuari.

Marko demokratikoaren proposamena, proposamen erreala da, egungo errealitate politiko-instituzionala aintzat hartzen duela; demokratikoa, proiektu politiko guztiari ateak irekitzen dizkiola; eta nazionala, lurralde osorako balio duelako.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaientzat Autonomia Estatutua, erabakitze eskubidea jasoko duena. Horretarako bertako herritarren atxikimendua ezinbestekoa izango da.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoarentzat Autonomia politikoa, erabakitze eskubidea jasoko duena.

Euskal Herri osoan euskal herritar ororen eskubide osoak bermatuko dituen nazio instituzioen eratzea.

Guzti hau aldarrikatzeko, Ibarako etxe guztiarentzat triptiko bat banatu da eta gaur, osteguna, plazatik 19:30tan kotxe karabanarako deia luzatzen dizuegu.

Denon artean aldaketa ematea posible delako!

**Naiara Jimenez.** Ibarako ezker abertzalearen kidea.

## Gaur Zeberio II.a eta Altuna I.a Galarretan

**Erremontea** » Hernanin jaialdia 16:00etan hasiko da. Herenegun Altuna II.ak bere partida galdu egin zuen 40-32.

A. IMAZ

Erremontea ez du atsedetik hartzen eta partidak jokatzen jarraitzen dute eskualdeko erremontistak. Altuna II.ak herenegun jokatu bazuen, gaur Zeberio II.aren eta Altuna I.aren txanda izango da.

### Garikoitz Altuna herenegun

Thermotechnic Torneoko txapel-dunordeak, Garikoitz Altunak, herenegun itzuli zen Galarretara. Bertan, Badiolarekin batera Uterga-Eizagirreren aurka jokatu zuen eta orangoan ere ezin izan zuen garai-penik lortu (40-32).

Partida berdinduta joan zen 28. tantura bitarte. Tantu honetatik aurrera Eizagirrek bere nagusitasuna ezarri zuen eta atzelariak Badiola erraz menperatu zuen. Amezketarrak bere aldetik maila

txukuna eskaini zuen, 15 tantu eta 4 hutsegite eginaz. Partidako onena Eizagirre izan zen, nahiz eta Utergak bikain lagundu 17 tantu-rekin.

### Zeberio II.a eta Altuna I.a gaur

Ohi bezala Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan erremontea jaialdia egongo da gaur 16:00etatik aurrera. Bertan bi eskualdeko erremontista arituko dira lanean garai-pena lortu nahian.

Elduaingo Patxi Zeberio jaialdiko bigarren partida jokatuko du. Aurrelariak Lizaso izango du atzetan eta Ezkurra-San Miguel bikotea aurrean. Bi aurrelari onenen arteko lehia ikusteko aukera bikaina egongo da gaur Galarretan.

Imanol Altuna amezketarrak hirugarren partida jokatuko du Etxeberria III.a lagun duela. Urri-za-Urrutia izango dituzte arerio. Bi partiduak 40 tantutara jokatuko dira. Jaialdiko beste partiduetan Matxin III -Etxezabal eta Zalaskain -Martinez I.a lehiatuko dira lehenik eta Bitoria-Aizpurua II.a eta Agirresarobe-Urko azkenik.



# Astlehenean ekingo diote sormen eta gorputz tailerrei eta haur txokoari

**Leitza** » Arkitektura eta olimpiar jokoak dira emanen dituzten lehen tailerrak eta oro har 12 ume gehiagok izena eman dute.

**NAIARA GARZIA**

Datorren astlehenean jada sormen eta gorputz tailerren lehenengo ikastaroak hasiko dira: arkitektura eta olimpiar jokoak, hain zuzen ere. Orotara 8 tailer antolatu dituzte, bai aragia, kolorea eta argazkiak izenekoa eta zirkonarena ere. «Natura eta uran erreka ondoan ur txirrista bat egin nahi dugu, toldo luze batzuk baditugu, baina horretarako eguraldi ona behar dugu. Ikusiko dugu azkenean monitorea noraino ausartzen diren, zer eguraldi eginen duen ikusita eta taldea nolako den».

Gainontzeko tailerretan behar adina jendek izena eman du, eta batzuetan behar baino gehiagok. Esaterako, ipuin kontutan izenekoan 20 bat-edo apuntatu dira. Orokorrean, lehenengo urtean baino 12 gazte gehiagok izena eman dute aurten.

## Aurten, eskaintza oparoa

Lehenengo urtean soilik haur txokoak antolatu ziren, 4 astez, lehenengo hamabostaldian edo bigarrenengoan parte hartzeko aukera ematen zen. Aurten 2 aste gehiago gehitu dira haur txokoan eta horretaz gain beste tailer hauek antolatu dituzte. Adin aldetik ere aldaketak batzuk izan dira, 3 urtetik aurrera izan ordez 5 urtetik aurrera onartuko baitituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, «hori lortzea asko kostatu zaigu, 7 urtetik aurre-



Haur txokoan umeak eskulanak egiten, duela 2 urte. J. ASTIBIA

rakoentzat soilik antolatu nahi baitzuten. Baina gertatzen dena da 8 urterekin horrelako gauzetan aspertzen hasten direla, horregatik bururatu zitzaizgun sormen eta gorputz tailerrak antolatzea, pixka bat zehatzagoak direlako». Sormen tailerrak 5 urte eta 12 urte bitarteko umeentzat dira.

## Diru laguntza

Hau dena antolatzeko udaletxeak INEMera diru laguntza bat lortzeko eskaera tramitatu zuen, eta 7 begiraleentzat jornada erdiko %80eko diru laguntza lortu zuten. «Udaletxeak badu begirale horiek guztiak kontratatzeko aukera, bai-

no oso baldintzatuta dago», diote antolatzaileek. «Zenbait astetan, esaterako, azkeneko bietan, ez dago tailer berezirik, bakarrik haur txokoa dago. Halere behartuta daude 2 aste horietan ere 7 begiraleak kontratatuz izateko, hori bete beharreko baldintza bat da. Orduan proposatu da 3 monitorea haur txokoan egotea eta besteak plazan, gazteentzako ekitaldi ezberdinak egiten». Honetan adin baldintza bereziak jarri dituzte, 8 urtetik aurrerako umeek soilik parte hartu ahalgo baitute, 12 urtera arte.

Olinpiadetan eta natura uran izeneko tailerrak arrakastatsue-

nak izan dira. Arkitekturak ere arrakasta izan du, 20 ume izena eman baitute.

Aurrematrikula bat egin zen eta hor izena eman duten guztiak ere dute inolako arazorik izan parte hartzeko. Antolatzaileek azaldu dutenez «aurrematrikula zer eskaera zegoen ikusteko egin zen. Hor garbikiusi zen zirkonare tailerra eta argia, kolorea eta argazkiak delakoa ez zirela oso bideragarriak. Gero arkitekturaren aurrematrikulak 11 batek izena eman zuten eta gero hogeira pasa dira».

Aurrematrikulak egin eta gero zenbait gauza aldatu direla diote antolatzaileek. «Arkitektura za-

lantzan egonduzen azken egunera arte eta gero 2 talde eginen dira adinaren arabera». Tailer bakoitzean 2 monitorea egonen dira eta antolatzaileen arabera, «aukera badago nolabait adinaren arabera banaketa bat eginen da, baina ez dago argi, gainera zenbait kontu elkarrekin egin daitezke, adin ezberdinekoak izan arren».

## Tailerretan burutzeko ideiak

Tailerretan egiteko zenbait ideia jada badituzte. Esaterako, arkitekturaren tipi edo indiaren denda horietako bat egiteko asmoa dute. «Natura eta uran erreka ondoan ur txirrista bat egin nahi dugu, toldo luze batzuk baditugu, baina horretarako eguraldi ona behar dugu. Ikusiko dugu azkenean monitorea noraino ausartzen diren, zer eguraldi eginen duen ikusita eta taldea nolako den».

## Begiraleak eta espezialistak

Orotara 7 begirale hartu dituzte haur txokoan eta sormen eta gorputz tailerretan umeekin egoteko. Denak Leitzakoak dira: Arantza Iparragirre, Iker Urkiola, Orkatx Erbiti, Maribi Lana, Goreti Kalderon, Iera Agirre eta Josune Mariezkurrena.

Hauetaz gain, ikastaroak aurrera ateratzeko espezialista batzuk egonen dira, adibidez arkitektura tailerretarako arkitekto bat hartu dute, «gauzak nola egin behar diren esateko». Musika eta dantzan Oskar Estanga etorriko da, birziklapen tailerretan ere beste bat eta ipuin kontutan izenekoan dira ipuin kontalari profesionalak etorriko dira, ez egunero, baina 3 egunetan edo bai.

Haur txokoa agrikularen eginen da. Beste tailerrak 2 lekuetan egiten dira: eskolako gimnasioan eta bertako jangelan.



## Uda eta gero, erremonte eskola martxan

**ARESO** » Ekainaren 13an Araitza, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko kirol mankomunitatearen eskutik Erremonte eskolaren aurkezpena egin zuten eta datorren irailean jarriko da martxan. Aurkezpenean eskola aurkeztu zuten, eta Zeberio II.a, Gaztelu, San Migel eta Uterga erremontistak bertan izan ziren. Hauek erremontearen inguruan mintzatu ziren eta gero frontoiera joan ziren eta norgehiagoka bat jokatu zuten. Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko kirol mankomunitatearen ekimena izan den arren, eskolan edozein herritako jendeak har dezake parte. «Oraindik ez dugu zehaztu ikastaroek ze egitura izanen dute, jendearan arabera antolatuko ditugu irailetik aurrera». Interesatuta dagoenak izena dagoeneko eman dezake. HITZA

## 70 urteko gidari bat zauritu da, N-1ean izandako istripuaren ondorioz

**Alegia** » Bi kamiok, furgoneta batek eta auto batek talka egin zuten atzo eguerdian; auto ilara luzeak sortu ziren.

## ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian N-1 errepidean jazo zen istripu baten ondorioz, 70 urteko gidari bat zauritu zen. Hain zuzen, bi kamiok, furgoneta batek eta auto batek elkar jo zuten eta errepidean gurutzaturik geratu ziren; ondorioz, trafikoa guztia errail bakarrera mugatu zuten. Barne sailak jakitera eman zuenez arratsaldeko lehen orduetan konpondu zuten arazoa.

Zauritua Tolosako Asuncion erietxera eraman zuten.



21°  
15°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 21°  
HOTZENA 15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Asteasu.** Haurren eguna: 10:00etan krosa; ondoren marrazketa lehiaketa; 12:00etatik 14:00etara haur parkea; 14:00etan bazkaria; 15:30etatik 18:00etara haur parkea; 18:30etan Zirko tipia taldea; 20:30etan Sorginaren jaitsiera eta txupinazoa; kalejira.

### Zinema

■ **Tolosa.** Win Wendersen *The soul of a man* filma izango da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean Leidor aretoan, Tolosand blues jaialdiaren barruan.

### Erakusketak

■ **Ibarra.** VIII. Kultur Lantegietako Artelanen Erakusketak zabalik aurkitzen da Benito Izagirre kultur etxean 09:30etik 13:30etara  
■ **Tolosa.** *Homofobia, Lebofobia eta Transfobiaren aurpegiak*, EHGAM taldearen erakusketak Leidor aretoan.  
■ **Tolosa.** Myriam Orkoien ibartarra olio-pinturak eta akriliko abstraktoak ditu ikusgai Fronton kafe-tegian.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosako Arrantzaleak antolatuta, txapelketa izango da igandean, 07:00etatik aurrera, Arzabalza poligonoan. Izen-ematea Usabalen 19:00etatik 20:30era edo igandean bertan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

# 10.000 laguneko tropelaren bila

**Euskara** » Dagoeneko 2.540 lagunek aukeratu dituzte Tourreko faboritoak 'www.tropela.net' atarian, euskara hutsean.

### A. MENDIZABAL / UROLA KOSTAKO HITZA

Badira gure artean sukarra eragiten duten gaiak, hautsak harrotzeko gai diren kontuak. Apustuak egitea da horietako bat, batzuen-tzat gure nortasunaren ezaugarri bilakatzera. Txirrindularitza izan daiteke bestea, askoren artean behintzat; eta, hori aipatuta, Frantziako Tourra dator kiguru gogora, eta Tourmalet-ean gora txirrindularien begien bistan agertzen den ikurrina pila. Bada, Tropelako lagunek *grina* horiek guztiak bateratzen dituzte ekimen bakar batean.

Izan ere, laugarren urtez jarraian, Tropela ekimeneko kideek Frantziako Tourraren inguruan apustuak egiteko aukera eman dute [www.tropela.net](http://www.tropela.net) webgunean. Parte hartzeko baldintza bakarra bete behar da: euskara hutsean aritzea. Hortik aurrera, ez dago txi-

rrindularitza aditua izan beharrik. Izan ere, Tropelakoek txirrindularitza aitzakia hutsa dela aitortu izan dute, teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzeko amua.

### Aurten, 10.000 helburu

Ekainaren 16an ireki zuten parte hartzeko epea eta, orduetik hona, jada 2.540 lagunek aukeratu dituzte Tourreko euren faboritoak. Uztailaren 5eko 12:30ean bukatuko da parte hartzeko aukera, «txirrindulariak pedalari ematen hasten diren unean».

Memento hori iritsi bitartean, «10.000 kideko tropela» osatzea nahi dute. Izan ere, «urte batetik bestera, parte-hartzaile kopurua %50 hazten da txapelketa bakoitzeko», eta kontuan izanda iaz 6.000 lagunek egin zutela apustu Frantziako Tourraren inguruan, ez dirudi bide txarretik doazenik.

Parte hartzeko, webgunean proposatzen diren 6 txirrindulari multzotatik 15 lagun aukeratu behar dira; lagun artean jolasteko aukera ere ematen du, *tropeltxoak* sortuz. Etapa bakoitza bukatu or-



Tropela ekimeneko kide Oihan Odrizolok eta Egoitz Lizasok (eserita), webguneko hainbat atal erakutsi dute. AMAIA MENDIZABAL

duko sartuko dituzte emaitzak webgunean.

### Eskauldeko 1. goarentzat sarria


Apustua izanda ere, berezia da Tropelako jarduna. Izan ere, erabat doako da parte-hartzea eta sariak ere, beraz, ez dira dirutan banatzen. Besteak beste, eskual txirrindularien mailotak edo Teniferia bidaia banatuko dituzte. Gainera, aurten herriz herriko babesleak lotu dituzte, eta sailkapenean lehenen gelditzen den zarratarrak, adibidez, Txiki Polit-en afaria irabaziko du.

Bestalde, HITZA tropelakoek bidalagun da abentura honetan, eta sailkapenean lehenen gelditzen den eskauldeko apustuzaleak HITZako material sorta jasoko du: kamiseta, aterkia eta gerriko motxila txikia.

### Elastikoak salgai

Bestalde, parte-hartzeak gora egitearekin batera, gastuak ere nabarmen handitu dira, eta aurten Tropelakoek elastikoak jarri dituzte salgai, 15 eurotan. Webguneko Denda atalean aurkitu daitezke horiek.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Unai Arrieta Kortajarena (Amasa-Villabona).** Gaur 5 urte. Familiaren partetik muxu potolo bat!



### Urte askoan!

**Izadi (Tolosa).** Gaur 5 urte. Muxuak etxekoan eta bereziki Maialen eta Laieneren partetik.



### Urte askoan!

**Harkaitz Amundarain (Amezketza).** Gaur 5 urte. Muxuak familia osoan eta bereziki Ibairen partetik.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**SUSTRAIEZ BLAI 2008**  
MUNDUKO KULTUREN VIII. TOPAKETA

**FUN·DA·MENTAL.**  
\* KISA-LIMONK. ADAN UNDEKORING \*

**FANFARE VAGABONTU**  
\* FANFILA SARRAINGA. HATZILLA-HELBURU \*

**GOSE SAIOA**  
\* 1990-1998. I.B. \*  
\* 1999-2004. I.B. \*

**MAX PASHM (LIVE DJ. SET)**  
\* NEVER WAS THE BAZILIAN LIMONK-SPECIAL \*

**LEGORRETAko HARRIPILA KIROLDEGIAN**  
EKAINAREN 28AN. 22:00ETAN. 15€